



LAN ESKAINTZA – TXIRIKILA, haurren aisialdi elkartearen EUSKARA ERREFORTZUAK ESKAINTZEKO LANGILEA

Lanpostuaren egitekoa:

LH1-etik LH4-rako mailatan dauden eta euskara nahikotasunik ez duten haurrei euskara errefortzuak eskaintzea Tortolis ludotekan.

Errefortzua modu ludikoan eskainiko da, haurren adinari egokituta eta bakoitzaren hizkuntza mailaren arabera.

Baldintzak:

- 18 urte beteta izatea
- Euskara maila ona izatea

Baloratuko dira: (50 puntu)

- Planteatutako egoerari erantzuteko aurkeztutako txostena (20 puntu)
- Eskoriatzarra izatea (7 puntu)
- Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) (5 puntu)
- Hezkuntza ikasketak eta arlo horretako lan esperientzia (6 puntu)
- Kulturartekotasun arloko ikasketak eta arlo horretako lan esperientzia (5 puntu)
- Aisialdian ikastaroak eta arlo horretako lan esperientzia (5 puntu)
- Txirikila elkartearekin urtean zehar egindako ekintzetan kolaborazioa (2 puntu)

Txostena: azpian adierazten den kasuaren aurrean

Gela bat ludotekan. Mahai bueltan 7 eta 8 urteko 12 ume.

- Jon, Jorge, Maite eta Laura. Ama hizkuntza gaztelera. Eskoriatzan jaiotakoak.
- Hasam eta Hamed . Ama hizkuntza urdua. Pakistanen jaiotakoak. Eskoriatzan urtebete bizitzen.
- Mohamed. Ama hizkuntza arabiera du. Marokon jaiotakoa. Eskoriatzan 2 urte bizitzen, beste urte bete Bartzelonan egin zuen.

Nola eragin talde horretan, euren adinari dagokion euskara maila lortzeko? Zein dinamika jarriko zenuke martxan? Ordubeteko saio bat nola antolatuko zenuke?

Eskaintzen da:

- 2015eko azarotik 2016ko ekainera bitarteko lana
- Orduetgia: 16:45 – 19:15 (astelehenetik ostegunera)
- Soldata: kontsultatu txirikila@gmail.com (943 71 49 21)

Eskaera bidaltzea:

Azkeneko eguna: 2015/10/30

Nora bidali eskaerak: txirikila@gmail.com

Eskaerak kontuan hartzeko honako hauek bidali beharko dira:

- Curriculumuma eta egiaztagiriak.
- Txostena. Kasu praktikoari erantzuna emanaz. Txostenaren gehienezko luzera 3 orri.

Informazioa:

- Nekane eta Maialen – Telefonoa 943 71 49 21 txirikila@gmail.com